

**ARRASATEKO UDALEKU IREKIETARAKO OSINTXUKO LUDOTEKAREN
ERABILERA ARAUTZEKO HITZARMENA**

Bergaran, 2024ko apirilaren 29an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan.

Bestetik, Amaia Urzain Martinez andrea, adinez nagusia, 44677513J zenbakiko NAN duena, eta Arrasaten, Nafarroa etorbidean dagoen *Txatxilipurdi* Elkarteko (CIF.: G20492138) lehendakaria, *Txatxilipurdi* elkartearen izenean.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

Arrasateko 2024ko Udaleku irekiak antolatzeke, *Txatxilipurdi* elkarteak Bergarako udalari Osintxuko ludoteka erabiltzeko baimena eskatu dio. Erabilpen hau uztailearen 8tik 19ra bitartekoa izango litzateke.

Bergarako Udalak Osintxun antolatzen dituen udaleku irekiak ekainaren 24an hasi eta uztailearen 19ra arte izango dira goizeko 10:00etatik 13:00etara.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: TXATXILIPURDI ELKARTEAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuak direla eta, gertatutako kalteen (apurketak, desagerpenak...) ordainketa bere gain hartuko du. Horrez gain, Arrasateko udalekuek parte hartzen duten haur, gaztetxo eta begiraleei gerta dakiekeen edozein kalteren erantzukizuna ere *Txatxilipurdi* elkarteak bere gain hartuko du.

Udalekuak eta honen antolaketak irauten duen bitartean, *Txatxilipurdi* elkarteko arduradunak *Jardun* euskara elkarteko udalekuekiko arduradunekin harremanetan egongo dira. Erabilerari dagokionez, Bergarako Udalak Osintxun antolatzen dituen udalekuek dute lehentasuna, beraz, Osintxuko udalekuekiko haurrak dauden bitartean, *Txatxilipurdiko* udalekuekiko erabiltzaileek ezin izango dituzte instalazioak erabili. Eraikuntzan edozein kalte gertatuz gero, Udaleko Gazteria teknikariari jakinaraziko diote.

Txatxilipurdi elkarteak arduratuko da ludotekako materiala eta erabilitako instalazioak zaindu eta garbitzeaz.





Begarako
Udala

BIGARRENA: UDALAREN BETEBEHARRAK.

Begarako Udalak Arrasateko *Txatxilipurdi* elkarteari Osintxuko ludotekako gelak eta komuna erabiltzeko baimena ematen dio.

HIRUGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen honek 2024ko Udaleku irekietarako balioko du, hauek bukatutakoan (eta hitzartutakoak betetakoan) sinatzaileek ez dute elkarrenganako inolako erantzukizunik izango.

Horrela jasota geratzeko, eta hitzartutakoarekin ados daudela eta bertan jasotakoa zintzo eta leial beteko dutela adierazteko, hitzarmen honen hiru kopia sinatu dituzte, hasieran aipatutako toki eta egunean.



**Begarako Alkatea
Gorka Artola Alberdi**



**Txatxilipurdi elkartea
Amaia Urzain Martinez**